



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 46. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Ekaina



GIPUZKOA



### NABARMENDU BEHARREKOA

#### > Europa 2020 Estrategiaren erabakia

Ekainaren 17an, Europako Kontseiluak estrategia berri bati ekin dio enpleguari eta hazkunde zentzudun, jasangarri eta integratzaileari begira. Estrategia honek esparru koherente bat osatzen du, Batasunak bere tresna eta politika guztiak mobilizatu ditzan eta estatu kideak koordinazio handiagoz jardun daitezen. Estrategiak egiturazko erreformak gauzatzen lagunduko du.

Kontseiluak nabarmendu duenez, strategiaren aplikazioa azpimarratu behar da, eta prozesu hori bideratu eta gainbegiratuko du. Halaber, datozen hilabeteetan EBren hazkundearen indarra desblokeatzeko neurri bereziak abian jartzeko moduaren inguruan eztabaidan jarraituko du. Abiapuntua berrikuntza- eta energia-politikak izango dira.

Europako Kontseiluak EBren bost helburu nagusiak berretsi ditu, eta helburu komun horiek estatu kideen eta Batasunaren jarduna gidatuko dute, ondorengo gaiak dagokienez: enpleguaren sustapena, berrikuntza, ikerketa eta garapenerako baldintzen hobekuntza, klima-aldaketaren eta energiaren inguruan ditugun helburuak betetzea, hezkuntza-mailen hobekuntza eta gizarteratzearen sustapena, bereziki pobrezia murriztuz.

*Informazio gehiago:*


[http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_data/docs/pressdata/es/ec/115349.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/115349.pdf)

#### > Belgikaren Lehendakaritza Europar Batasuneko Kontseiluan

Uztailaren 1ean hasiko da Belgikaren Lehendakaritza Europar Batasuneko Kontseiluan. Lehendakaritzaren lehentasunen artean, udazkenean berrikuntza-politikan oinarritutako goi-bilera europarra egitea eta ikerketa eta berrikuntzaren esparruan estrategia berria lantzea nabarmendu daitezke.

*Informazio gehiago (lan-programa, ingelesez):*

[http://www.eutrio.be/files/bveu/media/documents/Programme\\_EN.pdf](http://www.eutrio.be/files/bveu/media/documents/Programme_EN.pdf)



### KOHESIO-POLITIKA

#### > Egitura- eta Kohesio-funtsak: kudeaketa sinplifikatzea, krisia arintzeko laguntza gisa

Egitura- eta Kohesio-funtsak kudeatzeko arauak sinplifikatzeko neurri berriak hartu ditu Batasunak. Erabakitako aldaketen helburuak, bizi dugun une honetan funtsetarako sarbidea erraztea eta inbertsio-jarioak azkartzea dira, hain zuzen ere, aurrekontu publikoak presio handiaren pean daudenean.

Neurri berrien artean honako hauek azpimarra daitezke: gehienez 50 milioi euroko muga bakarra ezartzea Batzordearen onspena behar duten proiektu garrantzitsu mota guztietarako; proiektu handiak programa bat baino gehiagoren bidez finantza daitezen ahalbidetzea; programak berraztertzekeo prozedura sinplifikatzea; finantza-ingeniaritzarako bitartekoak indartzea; eta beren ordainketa-balantza laguntzeko NDFaren maileguak jaso dituzten edo BPGa % 10 baino gehiago jaitsi den estatu kideentzat 775 milioi euroko aurrerapen osagarriak aurreikustea. Bi irizpide horiek Estonia, Letonia, Lituania, Hungaria eta Errumaniari aplikatu dakizkioke.

Eta maileguak kitatzeko «n+2» arauaren aplikazioa atzeratzea: «n+2» arauaren arabera, 2009 urtearen bukaeran 2007an esleitutako finantziazioa gastatu ez bada, automatikoki itzultzen da EBren aurrekontura. Aldaketa berriei esker, 2007ko konpromisoak epe luzeagoan erabiltzeko aukera izango da. Modu horretan, 220 milioi euro inguru galtzea saihestuko da (125 Espainiarentzat, 56 Italiarentzat, 9 Erresuma Batuarentzat, 6 Alemaniarentzat, 4 Herbehereentzat eta 20 hainbat herrialderen lankidetzaproiektuentzat).

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2010:158:0001:0006:ES:PDF>

#### > Arrantzaren Europako Funtza 2007-2013 Euskadin

Pilar Unzalu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak Arrantzaren Europako Funtza 2007-2013ren gauzatze-maila, konpromisoak eta ordainketak aurkeztu ditu Eusko Legebiltzarrean.

Legebiltzarren erantzunak jasotzen duenaren arabera, konpromisoei dagokienez 2009an guztizko gauzatze-maila % 30 zen eta ordainketei dagokienez, berriz, % 14.

*Informazio gehiago:*

<http://www.parlamento.euskadi.net/irud/09/00/011679.pdf>




### > Europako eskualdeak eta Lisboako helburuak

REGIO Zuzendaritza Nagusiaren «Regional Focus» sailaren azken alean, «Lisboako indizea» adierazlea kalkulatu eta aztertu dute. Indize horrek Europako eskualdeek 2010erako EBren Lisboako estrategiak zehaztutako helburu nagusiak zein mailatan betetzen dituzten neurtzen du, enplegua, hezkuntza eta ikerketa eta garapenari dagokionez.

Eskualdeen batez bestekoa ez zen gehiegi aldatu 2000 eta 2007 artean, eta 2000 urtean 57 puntu izatetik, 2007an 60 izatera pasatu zen (gehieneko 100 puntuko balioaren gainean). Puntuazio onena izan zuten hamar eskualdeak (94 eta 100 artean) ondorengo hiru herrialdeetan daude: Finlandia (3), Suedia (4) eta Erresuma Batua (3).

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/focus/2010\\_03\\_lisbon\\_index.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/focus/2010_03_lisbon_index.pdf)



## KOMUNITATEKO POLITIKAK

### > Gobernantza ekonomikoa indartzea

Ekainaren 17ko Europako Kontseiluak nabarmentzen duenez, Europako gobernu ekonomikoaren ahultasunek berau indartzea beharrezkotzat jotzen dute, bereziki aurrekontu eta makroekonomia orokorra gainbegiratzeari dagokionean. Horregatik, politika ekonomikoaren koordinazioa indartzea funtsezko eta premiazko lehentasuna da.

Eta orientazio-multzo bat erabaki du. Horien artean, honako hauek daude: Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren prebentziozko alderdiak nola alderdi zuzentzaileak indartzea; eta aurrekontuak zaintzeko orduan, zorraren mailei eta bilakaerei eta jasangarritasun orokorrari paper indartsuagoa ematea, Egonkortasun eta Hazkunderako Itunean jatorrian aurreikusitakoari jarraituz.

*Informazio gehiago:*

[http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_data/docs/pressdata/es/ec/115349.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/115349.pdf)

### > Hezkuntza eta lanbide heziketa, hazkunde inklusiboa, jasangarria eta zentzuduna sustatze aldera

Batzordearen Jakinarazpena Europa 2020 Estrategiak hezkuntzaren eta lanbide heziketaren erakargarritasuna indartu dadin definitutako esparruaren haritik doa eta Estrategiaren ekimen adierazgarriekiko boterea deskribatzen du. Alegia, «Kualifikazio eta enplegu berrien agenda» eta «Gazteria Mugimenduan» ekimenen inguruan, bere «Gazteen Enplegu-esparrua» barne.

HLHaren egitekoa bikoitza dela dio: alde batetik, epe laburrean eta etorkizunean Europaren gaitasunen beharrak asetzen laguntzea; eta horrekin batera, krisiaren eragin soziala murriztea eta ondoren berpiztu dadin laguntzea.

Halaber, HLHak etengabeko ikaskuntzan eta mugikortasunean duen funtsezko zeregina islatzen du, kontuan hartuta gaitasunak etengabe eguneratuta egon behar direla. Bestalde, maila desberdineko prestakuntzarako aukerak izatea maximizatzea, nola ikaskuntzaren emaitzak eskuratzeko, horiek ebaluatzeko eta kualifikazioetara nola bideratzen diren ikusteko moduari lotuta malgutasun handiagoa izatea.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0296:FIN:ES:PDF>



### > Europan zeharreko Garraio-sarea


RTE-T-aren politika gainbegiratzeari dagokionean, Batzardeak bigarren kontsulta publikoa egin du. Honen helburua, eskuragarri dauden aukera politikoak hobetzea da, hain zuzen ere, EBko erakundeek eta alde interesatu askok 2009an barrena egindako ekarpenetatik sortutakoak. Ekarpen horiek adituen taldeek eztabaidatu dituzte.

Kontsultarako dokumentu batetik abiatuta, Batzardearen asmoa bertan azaldutako ideia eta galderen inguruko iruzkinak eta iradokizunak biltzea da. Oharrak irailaren 15a baino lehen bidali behar dira.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0212:FIN:ES:PDF>





### e-LIBURUTEGIA

#### > Europako ETEen urteko txostena

Europako ETEen 2009ko txostenak ETEen eta Batasunean garatutako politiken egoerari buruzko informazioa eskaintzen du.

Aztertutako alderdien artean, krisiak ETEetan duen eraginaren azterketa nagusitzen da: finantziarioa, politika publikoak eta ekintzailtza. Beste atal batzuetan, enpresaren dinamismoa, enplegua, ekoizpena eta Europako ETEen produktibitatea eta inbertsioa aztertzen dira.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/enterprise/policies/sme/facts-figures-analysis/performance-review/pdf/dgentr\\_annual\\_report2010\\_100511.pdf](http://ec.europa.eu/enterprise/policies/sme/facts-figures-analysis/performance-review/pdf/dgentr_annual_report2010_100511.pdf)

#### > Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak hezkuntzan

Batzordearen azterketak jasotzen duenez, Batasuneko herrialdeen erdiek ikasketak aukeratzeko orduan paperen estereotipoei eta banaketa tradizionalari aurre egiteko politikak dituzte, baina sexuari lotutako desberdintasunak maila guztietan daude.

Prestakuntzaren orduan genero-rol tradizionalak mantentzen direla baieztatzen du, nahiz eta goi-mailako irakaskuntzan emakumeen presentzia handiagoa da matematiketan, zientzietan eta teknologian.

Edonola ere, herrialde gehienetan ikasle eta lizentziatu gehienak emakumeak dira eta hezkuntza, osasuna eta ongizatearen sektoreetan, eta giza zientzietan eta arteetan nagusi dira. Gizonak gehiengoak dira ingeniarietan, fabrikazioan eta eraikuntzan.

*Informazio gehiago:*

[http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic\\_reports/120EN.pdf](http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic_reports/120EN.pdf)

#### > Turismoa Europan

Eurostaten argitalpenak Europan eta Batasuneko estatu kideetan turismoak 2009an eta 2010eko lehen hilabeteetan izandako bilakaeraren oinarriko adierazleak biltzen ditu.

2009an ostatu-gauen kopurua % 5 inguru jaitsi zen, nahiz eta bidaien kopurua egonkor mantendu. Bertakoak ez diren biztanleen kasuan, jaitsiera % 9 izan zen.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product\\_details/publication?p\\_product\\_code=KS-QA-10-024](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-QA-10-024)



### ADIERAZLEAK

#### > BPGa biztanleko

2009an Batasuneko estatu kideen biztanleko BPGa Bulgariako % 41aren (Batasuneko batez bestekoarekiko) eta Luxenburgoko % 268aren artean dago, Eurostaten kalkuluen arabera.

Finlandian, Frantzian, Espainian, Italian, Zipren eta Grezian per capita BPGa batez bestekoaren inguruan zegoen (% 10 gutxi gorabehera). Irlanda, Holanda, Austria, Suedia, Danimarka, Erresuma Batua, Alemania eta Belgika batez bestekoaren gaineratik % 15 eta % 35ean kokatzen ziren. Bestalde, Europar Batasuneko per capita BPGa altuena Luxenburgok zuen.

Maila baxuena zuten herrialdeak Letonia, Errumania eta Bulgaria ziren, Europar Batasuneko batez bestekotik % 50 eta % 60 beherago.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_PUBLIC/2-21062010-AP/EN/2-21062010-AP-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-21062010-AP/EN/2-21062010-AP-EN.PDF)

#### > Presio fiskala

EB-27an presio fiskala % 39,3ra jaitsi zen 2008an, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago. Estatu kideetatik hemezortzitan presio fiskala jaitsi egin zen, eta gainerako bederatzietan, berriz, igo.

Lanaren gaineko presio fiskalaren tasa inplizitua % 34,2 izan zen Batasun osoan; kontsumoaren gainekoa % 21,5 eta kapitalaren gainekoa % 26,5.

Presio fiskal handiena duten estatuak Danimarka (% 48,2), Suedia (% 47,1), Belgika (% 44,3) eta Finlandia (% 43,1) dira. Indize txikiak Errumaniak (% 28,0), Letoniak (% 28,9), Eslovakiak (% 29,1) eta Irlandak (% 29,3) dituzte.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_PUBLIC/2-28062010-BP/EN/2-28062010-BP-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-28062010-BP/EN/2-28062010-BP-EN.PDF)